

Lagun Artean



urte
aterpea eskainiz
bizitokia eskainiz


txostena **2022**



LAGUN ARTEAN eirabazi asmorik gabeko elkarte bat da, onura publikokoa eta interes sozialekoa, eta etxerik gabeko pertsonen harrera eta laguntza emateko lanean dihardu 1983az geroztik.

Gure jarduerak pertsona kokatzen du erdigunean, eta topaketa, harremanak sortzea eta gizarte-partaidetza ahalbidetzen du. Bizkaiko elizbarrutiari eta Caritasi lotuta dago.

Gure lana aurrera eramateko **lantalde zoragarri** bat dugu:



HELBURUAK:

- ♥ Pertsona guztiek etxebizitza duina eskura dezaten lortzea.
- ♥ Gizarte-bazterkeria eragiten duten egiturazko arazoak deuseztatzea.
- ♥ Pertsona guztientzako berdintasunezko gune bat izatea.
- ♥ Egoera zaurgarrian daudenen aldeko lanaren erreferentzia izatea Bizkaian.

Lagun Artean elkartearen, uste dugu gizaki orok duela etxea izateko eskubidea eta gizarte justu bat eraikitzearen alde lan egiten dugu.

- Etxerik gabeko pertsonen harrera egin eta laguntza ematen diegu, bizi-kalitatea, autonomia eta gizarteratzea hobetzeko beharrezko laguntzak emanez
- Herritarrak sentsibilizatzen ditugu zaurgarritasunari eta gizarte-bazterkeriari buruz, eta partaidetza eta boluntarioritza-prozesuak errazten ditugu
- Bidegabekeriak salatzen ditugu, eta konponbideak bilatu eta alternatiba kolektiboak proposatzen ditugu

VALOREAK:



19
Etxebizitza



123
Ohe erabilgarri

355
Laguni harrera 2022an



17
Sari eta aintzatespen



GJHei egiten diegun ekarpena - Euskadi 2030 Agenda:



**Garapen
Jasangarririk
Helburuak**



ABIAN DITUGUN PROIEKTUAK:

Lagun Artean programek helburu dute pertsonak ahalik eta autonomia eta gizarte-ratze-mailarik handiena lortzea, bizitza

autonomoa edo, guztiz autonomia ez bada, ahalik eta autonomoena egin dezaten, horretarako behar diren laguntzak emanez.

EUSKO JAURLARITZA





IREKIA

Egunez babesteko eta kaleko bizimoduaren inpaktua arintzeko gune epela. Gizarteratze-prozesuetarako laguntza eta oinarrizko premien estaldura.

Bilboko Udalarekin hitzartuta.

GAUEKO ZENTROA

Gaueko harrera, urtean 365 egun; 32 plaza. Oinarrizko premien estaldura (ostatua, mantenua, higiene pertsonala...) eta informazioa, orientazioa eta laguntza. Egonaldiaren iraupena aldatu egiten da egoeraren arabera.

Bilboko Udalarekin eta Tapia eta Antonio Menchaca fundazioekin hitzartua.

AUKERAZ

Gizon migratzaileentzako laguntza eta aterpea; 29 plaza.

Bilboko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Tapia, la Caixa eta Susana Monsma fundazioek finantzatua.

Aize Onak: Artxanda mendian kokatutako baserria, Aukeraz programako 11 plaza ditu.

Trapezistak eta Irauli: Eusko Jaurlaritzaren programak, Aukeraz programako plazak dituztenak. Migratzaile gazteentzako gizarteratze-prozesuak.

EMAKUME PROGRAMA

Bakarrik dauden edo adingaberen bat zain-tzapean duten emakumeentzako aterpea eta laguntza; 39 plaza.

Bilboko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Tapia, Carmen Gandarias, Susana Monsma, Gondra Barandiarán eta Carmelitas Vedruna Europa-Bilbao fundazioek finantzatua.

Kanala: Emakume programaren barruko proiektua, Bilboko Udalarekin hitzartua. Bi pisu, 13 plaza.

KIDE

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako egonaldi luzeko zerbitzu integrala. Egunezko zerbitzua, 26 plaza, laguntzarako, arreta psikologikorako, jardueretarako, etab.; eta 13 egoitza-plaza.

Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartua.

FOCUS

Bazterkeria-egoera iraunkorrean dauden pertsonentzako egonaldi luzeko egoitza zentroa; 10 plaza. Denbora-mugarik gabe; laguntza, urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartuta.





2022AN EGOITZA-BALIABIDEETAN HARTUTAKO PERTSONAK

	Bestelakoa	Emakumea	Gizona	Zenbat	Plazak	Baliabideak
Focus	0	0	12	12	10	3
Kide	0	6	12	18	13	3
Bigarren mailako arreta	0	6	24	30	23	6
Gaueko Zentroa	2	13	202	217	32	1
Aukeraz	0	0	48	48	26	5
Lehen mailako arreta	2	13	250	265	58	6
Kanala	0	12	5	17	13	2
Emakume programa	0	46	14	60	39	7
Etxebizitzak guztira	0	52	86	138	88	18
Baliabideak guztira	2	65	288	355	120	19

2022AN EGOITZAZ BESTELAKO BALIABIDEETAN HARTUTAKO PERTSONAK

	Bestelakoa	Emakumea	Gizona	Zenbat	Plazak	Baliabideak
KIDE eguneko zerbitzua	0	5	11	16	13	1
IREKIA	0	4	65	69	∞	1

FINANTZA-ENTITATEAK





PLATAFORMETAN PARTE-HARTZEA



BIHOZTUN ENPRESAK



Mantak biltzeko kanpaina

Europa osoan gero eta pertsona gehiago bizi dira kalean. **Lagun Artean** elkartearen bidez, ahal dugun guztiei laguntza ematen saiatzen gara, baina ezinezkoa zaigu denei aterpea ematea; hala ere, **gutxienez otordu bero bat eta epeltzeko arropa eskaintzeko ahalegina egiten dugu**. Kanpaina honen bidez, hain zuzen ere, egoera onean dauden mantak eta lozakuak bildu, eta beharra dutenei banatzen dizkiegu, gauak epelago igaro ditzaten.


Erabiltzen ez dituzun horiek gure egoitzara ekar ditzakezu astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.




INFORMAZIO EKONOMIKOA

2022ko ekitaldiko bolumen ekonomikoa: **1.861.844,11€**

DIRU SARRERAK



GASTUAK





Kontaktua

Solidariza zaitez

BOLUNTARIOAK

Zure denbora, ahalegina, elkartasuna eta maitasuna eskain ditzakezu gure edozein proiektutan.

BAZKIDEA

Aldizkako ekarpen ekonomikoaren bitartez, solidaritatearen aldeko gure lanean parte hartu eta hura babesten duzu.

DOHAINTZA

FIARE
LABORAL KUTXA
KUTXA BANK
BIZUM

ES34 1550 0001 2100 1007 1322
ES87 3035 0057 90 0570043812
ES34 2095 0355 70 3830607841
03536

LEGATU SOLIDARIOA

Sartu **Lagun Artean** onuradun gisa zure testamentuan.

BIHOTZA DUTEN ENPRESAK

Zure enpresak gure ekintza sozialean lagundu edo parte har dezake hainbat modutara.

Kontaktua:

Tel: 944 47 24 87
whatsapp eta telegram: 688 867 000
lagun-artean@lagun-artean.org
Julio Urquijo kalea 5, 48014-Bilbo
www.lagun-artean.org



auditoria soziala
REAS EUSKADI



RECONOCIMIENTO DE BRONCE
A LA GESTION AVANZADA

Onura publikokoa eta interes sozialekoa